**NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA**

**4424**

AGINDUA, 2008ko maiatzaren 30ekoa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena; horren bidez irizpideak eta prozedurak ezartzen dira foru erakundeei eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoari finantza-zuzenketak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko, NBEF eta LGENF Erkidegoko funtsen kontura egiten dituzten finantza-laguntzen kudeaketa- eta kontrol-jarduerengatik.

367/1998 Dekretua, abenduaren 15ekoa, NBBEF-Bermearen kargura finantzatutako laguntza zuzenak kudeatzeari buruzko zereginak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunetatik Arabako Lurralde Historikora eskualdatutakoak, zabaltzen dituena; 368/1998 Dekretua, abenduaren 15ekoa, NBBEF-Bermearen kargura finantzatutako laguntza zuzenak kudeatzeari buruzko zereginak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunetatik Bizkaiko Lurralde Historikora eskualdatutakoak, zabaltzen dituena; eta 369/1998 Dekretua, abenduaren 15ekoa, NBBEF-Bermearen kargura finantzatutako laguntza zuzenak kudeatzeari buruzko zereginak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunetatik Gipuzkoako Lurralde Historikora eskualdatutakoak, zabaltzen dituena. Dekretu horien bidez nekazaritzaren arloan lehendik Foru Aldundietara eskualdatutako zereginak zabaltzen dira, Erkidegoko funtsen kargura finantzatutako laguntzei loturik.

Zereginen eskualdatze horietan, lehenago aipaturiko arauen bidez ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean Batzorde Paritarioa sortu da eskualdatuko diren arloen inguruan. Zeregin horiek lehen aipaturiko dekretuetan zehazten dira, eta horien artean finantza-zuzenketaren oinarri eta jarraibideen ezarpena dago, Europar Batasunak erakunde ordaintzaileari isunak edo finantza-zuzenketak ezartzen dizkion kasuetatik eratorritakoa. Isun edo finantza-zuzenketa horiek neurri osagarriei eta laguntza zuzenei dagokienez bere gain hartutako jarduerak gauzatzean ezein euskal administraziok zeregin horiek ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozkoak dira.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren aginduaren bidez osaera ezarri eta abenduaren 15eko 367/1998 Dekretua, abenduaren 15eko 368/1998 Dekretua eta abenduaren 15eko 369/1998 Dekretuarekin bat etorriz sorturiko Batzorde Paritarioaren funtzionamendu-arauak ezarri dira eta «Nekazaritza Funtsen Batzorde Paritarioa» (COPAFA) izena izatera pasatu da; hemendik aurrera «COPAFA» bezala agertuko da.

2006ko urriaren 13an urriaren 3ko 194/2006 Dekretua argitaratu zen. Horren bidez EAEko Erakunde Ordaintzailea eratzen da, ekainaren 21eko nekazarit-

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN**

**4424**

ORDEN de 30 de mayo de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se establecen los criterios y procedimientos para la atribución y cuantificación de las correcciones financieras a los Órganos Forales y/o a la Comunidad Autónoma del País Vasco, por las actuaciones de gestión y control que realicen de las ayudas financiadas por cuenta de los fondos comunitarios FEAGA y FEADER.

Mediante el Decreto 367/1998, de 15 de diciembre, de ampliación de funciones correspondientes a la gestión de ayudas directas financiadas con cargo al FEOGA-Garantía, que se traspasan a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco al Territorio Histórico de Álava, el Decreto 368/1998, de 15 de diciembre, de ampliación de funciones correspondientes a la gestión de las ayudas directas financiadas con cargo al FEOGA- Garantía, que se traspasan de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco al Territorio Histórico de Bizkaia, y el Decreto 369/1998, de 15 de diciembre, de ampliación de funciones correspondientes a la gestión de las ayudas directas financiadas con cargo al FEOGA-Garantía, que se traspasan de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco al Territorio Histórico de Gipuzkoa, se amplían las funciones ya traspasadas a las Diputaciones Forales en materia de agricultura, en relación con ayudas financiadas con cargo a fondos comunitarios.

En dichos traspasos de funciones, se crea, conjuntamente por las normas precitadas, una Comisión Paritaria entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales en relación con las materias objeto del traspaso, funciones que son especificadas en los precitados decretos, y entre las que se encuentra el establecimiento de las bases y directrices de corrección financiera derivada de supuestos en que la Unión Europea imponga al Organismo pagador, multas o correcciones financieras derivadas del incumplimiento o cumplimiento erróneo por parte de cualquiera de las Administraciones Vascas en la ejecución de las actuaciones asumidas respecto de las medidas de acompañamiento y ayudas directas.

Mediante Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación se concreta la composición y se establecen las normas de funcionamiento de la Comisión Paritaria creada de conformidad con el Decreto 367/1998, de 15 de diciembre, Decreto 368/1998, de 15 de diciembre, y Decreto 369/1998, de 15 de diciembre, pasándose a denominar «Comisión Paritaria de Fondos Agrícolas» (COPAFA), en adelante «COPAFA».

El 13 de octubre de 2006, se publica el Decreto 194/2006, de 3 de octubre, por el que se constituye el Organismo pagador de la CAPV, como consecuencia de

zako politika bateratuaren finantziazioari buruzko Kontseiluaren 1290/2005 (EE) Erregelamendua indarrean sartzearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailearen funtzionamendua erregelamendu berri horretara egokitzeko beharraren ondorioz. Erakunde hori irailaren 26ko 425/1995 Dekretuak araupetzen du eta aipatu urriaren 3ko 194/2006 Dekretuak indargabetzen du.

Aipatu urriaren 3ko 194/2006 Dekretuaren 7. artikuluak ezartzen duenez, NBEF eta LGENF Erkidegoko funtsen kargura finantzatutako laguntzen kudeaketa eta kontrolean parte hartzen duten Administrazio Publikoak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako foru-organoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa) izango dira Europar Batasunak ezar ditzakeen finantza-zuzenketak bere gain hartuko dituztenak, jarduera horiek betetzearen ondorioz.

«COPAFA» izango da parte hartzen duten administrazioei, beren jardueraren arabera, finantza-zuzenketak esleitzeko ardura duena, aipatu dekretuaren 7. artikuluko 2. idatz-zatian jasotzen den bezala.

Artikulu bereko 3. idatz-zatiak kasuan-kasuan ezartzen diren finantza-zuzenketak esleitu eta zenbatekoa finkatu ahal izateko irizpideak eta prozedurak ezartzeko premia jasotzen du; horri Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren aginduaren bidez ekingo zaio.

Urriaren 3ko 194/2006 Dekretuaren 7. artikuluko 3. idatz-zatia betetzeko argitaratu da agindu hau.

Agindu hau egiteko orduan lurralde historikoetako foru-organoek parte hartu dute.

Horrenbestez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak eskatuta eta nahitaezko txostenekin bat etorriz,

XEDATU DUT:

***1. artikulua.–*** Xedea.

Agindu honen helburua Europar Batasunaren organoen erabakietatik eratorriko diren eta Euskal Autonomia Erkidegoak eta/edo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako foru-organoek burutzen dituzten nekazaritzako Erkidegoko funtsen kontura finantzatutako laguntzak kudeatzeko eta kontrolatzeko jardueretatik etorriko diren finantza-zuzenketak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak eta prozedurak ezartzea da.

***2. artikulua.–*** Organo eskuduna.

Urriaren 3ko 194/2006 Dekretuko 7. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, «COPAFA» izango da Europar Batasuneko organoen erabakietatik eratorriko diren eta NBEF eta LGENF Erkidegoko funtsen kontura finantzatutako laguntzen kudeaketa- eta kontrol-jarduerak ez betetzea edo gaizki betetzearen ondo-

la entrada en vigor del Reglamento (CE) n.º 1290/2005, del Consejo de 21 de junio sobre la financiación de la política agrícola común, y de la necesidad de adaptar a este nuevo reglamento al funcionamiento del Organismo pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, regulado por el Decreto 425/1995, de 26 de septiembre, y que deroga el citado Decreto 194/2006, de 3 de octubre.).

El artículo 7 del citado Decreto 194/2006, de 3 de octubre, dispone que serán las Administraciones Públicas implicadas en la gestión y control de las ayudas financiadas con cargo a los fondos comunitarios FEAGA y FAEDER (Órganos Forales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco) las que asuman las correcciones financieras que pudieran imponerse por la Unión Europea, consecuencia de la ejecución de dichas actuaciones.

La «COPAFA» será la encargada de atribuir las correcciones financieras a las Administraciones implicadas dependiendo de sus actuaciones, tal y como se recoge en el apartado 2 del artículo 7 del referido decreto.

El apartado 3 del mismo artículo recoge la necesidad de que se establezcan los criterios y el procedimiento para poder atribuir y cuantificar las correcciones financieras que en su caso se impongan, lo que se acometerá mediante Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación.

Para dar cumplimiento al artículo 7 apartado 3 del Decreto 194/2006, de 3 de octubre, es por lo que se publica la presente orden.

Para su elaboración han participado los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

En su virtud a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, de conformidad con los informes preceptivos,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

La presente Orden tiene por objeto establecer los criterios y procedimientos para la atribución y cuantificación de las correcciones financieras que sobrevengan por decisiones de los órganos de la Unión Europea, y que se deriven de las actuaciones de gestión y control que realicen los Órganos Forales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y/o la Comunidad Autónoma del País Vasco, de las ayudas financiadas por cuenta de los fondos comunitarios agrícolas.

***Artículo 2.–*** Órgano competente.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7 apartado 2 del Decreto 194/2006, de 3 de octubre, será la «COPAFA», la que resolverá la atribución de las correcciones financieras que sobrevengan por decisiones de los órganos de la Unión Europea y que se deriven del incumplimiento o cumplimiento erróneo de las actuaciones de

rioz eragindako finantza-zuzenketen esleipena ebatziko duena.

***3. artikulua.–*** Finantza-zuzenketak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak.

Finantza-zuzenketak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak honakoak izango dira:

1.– Irizpide orokorrak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek honakoen ardura izango dute:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak emandako prozedura, jarraibide edo interpretazioetatik eratorritako eta jakinarazitako hutsak.

– Gastuei eragiten dieten aditzera emandako hutsak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzaileak gastu horiek betearazteko eta koordinatzeko jarraibideak emateko ardura du eta jarraibide horiek ezarri ez izana.

– Erkidegoko informazioa edo jarraibideak foru-organoei jakinaraztean atzerapena izatea edo ez jakinaraztearen ondorioz sorturiko aditzera emandako hutsak.

b) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako foru-organoek paragrafo honetako A idatzzatian aipatu ez diren gainerako kasuen ardura izango dute.

2.– Irizpide bereziak:

a) Banakako espedienteetan oinarrituriko zuzenketak:

– Erkidegoko araudia betetzen ez duten eskarietan eginiko ordainketaren edo ordainketen zenbatekoari zuzenean eragiten dioten zuzenketak: zuzenketak Euskal Autonomia Erkidegoari edo foru-organoei egotziko zaizkie, Erkidegoko araudia betetzen ez duten eskarien izapidetzearen arduradunak direnean.

– Euskal Autonomia Erkidegoko espedienteak espedienteen eredu adierazgarriaren azterketaren emaitzetan oinarritzen dituzten zuzenketak: estrapolazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzaileak bere gain hartutako zereginak direla-eta gertatzen ez denean, erakunde ordaintzaileari egotzitako zuzenketa osoa foru-organoen artean banatuko da, egotzitako zuzenketaren arrazoiak eragindako ordainketa osoan Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak duen parte hartzearen arabera.

b) Kudeaketa-unitateen jarduera egokiari buruzko zalantzak oinarri dituzten zuzenketak: kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-unitateek Erkidegoko araudiarekin bat etorriz jarduerak burutu izanaren zalantzetan oinarritzen dira zuzenketak; zalantza horiek Batzordeak arrazoitutzat jotzen ditu.

gestión y control de las ayudas financiadas con cargo a los fondos comunitarios FEAGA y FEADER.

***Artículo 3.–*** Criterios de atribución y cuantificación de las correcciones financieras.

Los criterios de atribución y cuantificación de las correcciones financieras serán los siguientes:

1.– Criterios generales:

a) Las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco serán responsables de:

– Las deficiencias puestas de manifiesto que se deriven de procedimientos, instrucciones o interpretaciones emitidas por el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Las deficiencias manifestadas que afecten a gastos para los que el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco tenga la responsabilidad de dar instrucciones concretas de ejecución y coordinación y no las haya establecido.

– Las deficiencias manifestadas que se hayan producido como consecuencia de la falta o demora en la comunicación a los órganos forales de informaciones o instrucciones comunitarias.

b) Los Órganos Forales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa serán responsables de los demás casos no señalados en el apartado A del presente párrafo.

2.– Criterios particulares:

a) Correcciones basadas en expedientes individuales:

– Correcciones que afectan directamente a la cuantía del pago o pagos efectuados sobre solicitudes que incumplen la normativa comunitaria: las correcciones se imputarán a los Órganos Forales o a la Comunidad Autónoma del País Vasco en cuanto sean responsables de la tramitación de las solicitudes que incumplen la normativa comunitaria.

– Correcciones que extrapolan al conjunto de los expedientes de la Comunidad Autónoma del País Vasco los resultados del examen de una muestra representativa de expedientes: siempre que la extrapolación no sea debida a funciones asumidas por el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el total de la corrección imputada al Organismo pagador la Comunidad Autónoma del País Vasco se distribuirá entre los Órganos Forales, en función de su participación en el total del pago del que trae su causa la corrección imputada.

b) Correcciones basadas en dudas fundadas sobre la correcta actuación de las unidades de gestión: las correcciones se basan en dudas que la Comisión considera fundadas, de que se haya seguido una actuación acorde con la normativa comunitaria por parte de las unidades de gestión, control o pago.

Zalantza horiek ondoko arrazoietako batean edo batzuetan oinarritu daitezke:

– Kontrol-jarduerak idatziz ez jasotzea.

– Kontrolen kalitate txarra.

– Kontrol-zerrendarik eza (check-list) edo kontrol horietan hutsak agertzea.

– Ikuskapenetan esku hartzen duten eragileen prestakuntzan hutsak edo bateraezintasuna izatea.

– Erkidegoko araudian aurreikusitako kontrol zehatzak ez burutzea.

– Egindako kontroletan egiaztapen zehatzik ez egitea.

– Emaitzen jarraipen okerra.

– Egin beharreko ordainketen aurreikuspen okerrak.

– Gehienezko kopuruak gainditzea, kopuru horiek ezarrita daudenean.

– Irregulartasunak prebenitzean edo zigortzean hutsak egitea.

– Ez dagokienei ordaindutakoak berreskuratzean irregulartasuna edo arduragabekeria.

– Bestelako arrazoiak, Batzordeak arrazoitutzat jotzen dituen kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-zereginekin loturikoak.

Hala denean, finantza-zuzenketak Euskal Autonomia Erkidegoari edo Lurralde Historikoetako foru-organoei esleituko zaizkie, zalantzan jarritako jardueren arduradunak izanez gero.

c) Batzordeari igorri beharreko informazioan hutsak daudelako edo informazio ezagatik egindako zuzenketak: igorritako informazioan hutsak egotearen edo informazioa faltatzearen erantzuleak diren organoa/k izango da/dira egotzitako zuzenketa guztia bere gain hartuko dutena/k.

d) Hutsen proiekzioetan oinarrituriko zuzenketak, kaltetuen bestelako lurralde historikoetan eginiko kontroletan Batzordeak aditzera emandakoak: erantzukizunaren printzipioa aplikatuko da hutsa zuzenketak kaltetutako lurralde historikoan ere agertzen denean edo inplikaturiko foru-organoak hutsa baztertzeko behar diren agiriak dagokion garaian eta moduan aurkezten ez dituenean.

e) Beste autonomia erkidegoetan Batzordeak jakinarazitako hutsen proiekzioetan oinarrituriko zuzenketak: erantzukizunaren printzipioa aplikatuko da hutsa lurralde historikoan edo foru-organoak ere agertzen denean edo foru-organoak lurralde historikoan hutsunea egon dela baztertzeko behar diren agiriak dagokion garaian eta moduan aurkezten ez dituenean.

Estas dudas pueden basarse en alguna o varias de las siguientes causas:

– Falta de constancia escrita de las actuaciones de control.

– Mala calidad de los controles.

– Ausencia de listas de control (check-list) o deficiencias en las mismas.

– Deficiencias de formación o incompatibilidad de los agentes intervinientes en las inspecciones.

– Falta de ejecución de controles concretos previstos en la normativa comunitaria.

– Ausencia de comprobaciones concretas en los controles efectuados.

– Seguimiento incorrecto de resultados.

– Errores en las previsiones de pagos a efectuar.

– Superación de las cantidades máximas cuando estuvieran establecidas.

– Deficiencias en la prevención o represión de irregularidades.

– Irregularidad o negligencia en la recuperación de pagos indebidos.

– Cualesquiera otras causas, relacionadas con las funciones de gestión y control y pago que la Comisión considere fundadas.

En todos estos casos, la atribución de las correcciones financieras se realizará a la Comunidad Autónoma del País Vasco o a los Órganos Forales de los territorios Históricos, en la medida que hayan sido responsables de las actuaciones cuestionadas.

c) Correcciones basadas en la falta o deficiencia de la información a remitir a la Comisión: el órgano/órganos responsables de la falta o deficiencia de la información remitida serán los que asuman el total de la corrección imputada.

d) Correcciones basadas en proyecciones de deficiencias, puestas de manifiesto por la Comisión en controles efectuados en Territorios Históricos distintos de los afectados: se aplicará el principio de responsabilidad cuando la deficiencia se presente también en el Territorio Histórico afectado por la corrección o cuando el órgano foral implicado no haya presentado en tiempo y forma la documentación necesaria para descartarla.

e) Correcciones basadas en proyecciones de deficiencias puestas de manifiesto por la Comisión en otras Comunidades Autónomas: se aplicará el principio de responsabilidad cuando la deficiencia se presente también en el Territorio Histórico o cuando el órgano foral no haya presentado, en tiempo y forma, la documentación necesaria para descartar la existencia de la deficiencia en el Territorio Histórico.

f) Epez kanpo egindako ordainketak: arrazoi hori dela-eta Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen zaion finantza-zuzenketa Autonomia Erkidegoari eta/edo foru-organoei egotziko zaie, ordainketa epez kanpo egin dela jotzeko arrazoitu duen gertaeran duten erantzukizunaren arabera.

3.– Soberazko irizpidea: aurreko zenbakietan aurreikusi ez diren egoeretan, zuzenketak Euskal Autonomia Erkidegoak eta/edo Lurralde Historikoetako foru-organoek hartuko dituzte bere gain, zuzenketa horiek beren jardueretatik eratorritakoak izanez gero.

***4. artikulua.***– Prozedura.

Europako Batzordeak, finantza-ikerketaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegora igorri beharreko funtsen minorazioa jakinarazten duenean, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzailearen zuzendaritza-organo gisa, funtsen minorazioaren jakinarazpena hartzen den egunetik luzatu ezin diren hiru egun balioduneko epean, COPAFAren Lehendakaritzara jakinarazpen horren kopia bidaliko du idatziz.

***5. artikulua.***– Jakinarazpena.

Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordantzailearen zuzendaritza-organo gisa, COPAFAren aktaren jakinarazpena jaso ondoren, akta hori, jasotzen denetik zenbatzen hasita hiru egun baliodunako epe luzaezinean, eta banaka, zuzenean kalteturiko foru-organoari edo organoei, edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zuzendaritza eskudunari jakinaraziko zaio, aktaren edukiak Europar Batasunak ezarritako finantza-zuzenketan erantzukizuna egoztea eragiten badu.

***6. artikulua.***– Esleitutako finantza-zuzenketen eraginkortasuna.

1.– COPAFAk Euskal Autonomia Erkidegoari egotzitako finantza-zuzenketak erkidego autonomo horrek hartuko ditu bere gain bere Aurrekontuen kargura.

2.– Foru Aldundiei egotzitako finantza-zuzenketak aldundiek berek hartuko dituzte beren gain, eta Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar izango zaizkio COPAFAk hartutako erabakiaren jakinarazpenetik hasita hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean indarrean jarriko da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 30a.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

f) Pagos fuera de plazo: la corrección financiera que por este supuesto sea atribuida a la Comunidad Autónoma del País Vasco será imputada a ésta y/o a los Órganos Forales en función de su responsabilidad en el hecho que haya motivado la consideración del pago como fuera de plazo.

3.– Criterio residual: en las situaciones no previstas en los números anteriores, las correcciones serán soportadas por la Comunidad Autónoma del País Vasco y/o los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en la medida que éstas sean derivadas de sus propias actuaciones.

***Artículo 4.***– Procedimiento.

Cuando la Comisión Europea, como consecuencia de una investigación financiera comunique la minoración de los fondos a remitir a la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Director de Agricultura y Ganadería como órgano de dirección del Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el plazo improrrogable de tres días hábiles desde la recepción de la comunicación de la minoración de los fondos, remitirá por escrito a la Presidencia de la «COPAFA», copia de la citada comunicación.

***Artículo 5.***– Comunicación.

Una vez recibida por el Director de Agricultura y Ganadería como órgano de dirección del Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la comunicación del Acta de «COPAFA», ésta será comunicada por escrito, en el plazo improrrogable de tres días hábiles desde su recepción, y de forma individual al Órgano o a los Órganos Forales directamente afectados, o a la Dirección competente del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco, si su contenido implicara la imputación de responsabilidad en la corrección financiera impuesta por la Unión Europea.

***Artículo 6.***– Efectividad de las correcciones financieras atribuidas.

1.– Las correcciones financieras imputadas a la Comunidad Autónoma del País Vasco por la «COPAFA» serán asumidas por esta con cargo a sus Presupuestos.

2.– Las correcciones financieras imputadas a las Diputaciones Forales serán asumidas por éstas, debiendo reintegrarlas a la Tesorería General del País Vasco en el plazo de un mes desde la notificación del acuerdo adoptado por la «COPAFA».

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de mayo de 2008.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.